

GAI ZEHATZEI BURUZKO BIDEO LABURRAK BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO PROFESIOALEN PRESTAKUNTZARAKO

Gehienez ere 5 bat minutu dirauten prestakuntza-pilulak dira eta profesionalen prestakuntzarako gai zehatzak azaltzen dituzte era erraz, eroso eta erakargarrian. ESiko Prestakuntza Zerbitzua arduratzen da horien gaineko koordinazio-lanaz, eta dagoeneko zortzi daude eskura erakundearen [intranetean](#).



Seigarren *online* prestakuntza-pilulan, esaterako, [datuak bistaratzeko pantailak \(DBP\) erabiltzen dituztenentzako gomendioak eta ariketak](#) eskaintzen zaizkigu. Bideo horren helburua da jarraibideak eta gomendioak ematea BDP baliatuz lan egiten duten profesionaleri, hau da, pantaila aurrean

egunean 4 ordutik gora edo astean 10/20 ordutik gora lanean ematen dituztenei. Gainera, muskulua lantzeko hainbat ariketa ere azaltzen dira.

Bi bideo mota daude: tutoretza-bideoak eta edizio-bideoak. Tutoretza-bideoa egitea aholkatzen da baldin eta aurkezpenetan tartekatze edo aplikazio informatikoak nola erabili erakusteko bada, eta, edizio-bideoak, berriz, irudi errealak erakusten dituzten eguneroko jardura konplexuagoak azaldu nahi izatekotan.

Barrualde-Galdakao ESiko profesional batek halako bideo bat egin nahi duenean, intraneteko inprimaki bat betetzen du jorratuko duen gaia azaltzeko, eta, gaia egokia dela iritzi gero, Prestakuntzako teknikari bat jartzen da harekin harremanetan. Edizio-bideoa bada, horren gidoia egileak berak egin behar izaten du, eta, bertan, hartualdiak, horiek grabatzeko tokiak eta hartualdi bakoitzari dagokion *off* ahotsaren testua ere zehaztu behar izaten ditu. Esan gabe doa TIK-TAK prestakuntza-bideoak gaztelaniaz ere grabatzen direla.

EUSKARAZ LAN EGITEKO TRESNA BERRI BAT DAGO e-Osabide APLIKAZIOAN



e-Osabideren erabiltzaileek honezkero ikono berri bat ikusiko zuten aipatu aplikazioaren goiko barran. Osabar deritzon baliabide berriaren ikonoa da. Osabarren datu-basean milaka itzulpen daude eta erabiltzaileak hor kontsultatu ahal izango du itzuli behar duen testua. Proiektua oraindik fase pilotuan dago, baina dagoeneko, kontsultatzeko ez ezik, euskararekin lotutako bestelako zalantzak argitzeko aukera ere eskaintzen du. Hain zuzen ere, Osabarrez arituko gara Osatuberriren ekaineko zenbakian.

SEXU-JARDUERAKO OHITURA OSASUNGARRIEN PREBENTZIOARI ETA SUSTAPENARI BURUZKO IKASTAROA

laz ere antzeko ikastaroa antolatu zuten UPV-EHU eta Osakidetza artean, eta aurtengo hau are garrantuago dator. Oraingoa, zehatz esanda, Araba ESiak eta Arabako Campuseko Errektoreordetzak antolatu dute eta, bertan, Osaguneko Sexukablog taldeko hainbat kide ariko dira irakasle, guztiak ere Osakidetza erakundee-tako edo UPV/EHUko jakintza-arlo askotariko profesionalak.

[Ikastaroa](#) profesional soziosanitarioentzat, irakasleentzat, unibertsitateko ikasleentzat eta beste arlo batzuetako parte-hartzaileentzat da, eta helburua da horiek sexu-jarduerako

ohitura osasungarrien prebentzioan eta sustapenean dituzten gaitasunak hobetzea, gai hauetan, hain zuzen ere: sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG), sexualitatearen kudeaketa eta sareko informazioa.

Ikastaroa teoriko-praktikoa da eta bi zati ditu, lineakoa (euskaraz edo gaztelaniaz) eta presentziala (gaztelaniaz bakarrik). Lineakoa maiatzaren 26an hasiko da, eta ekainaren 20ra bitartean egin daiteke (15 ordu guztira); presentziala, berriz, ekainaren 15ean egingo da Gasteizen, Farmazia Fakultatean, goiz eta arratsalde (10 ordu guztira). Goizeko saioa *streaming*

bidez jarraitu ahal izango da eta Lorena Berdún sexologoa ere bertan izango da.

Ikastaroan [izena emateko](#) epea zabalik dago ekainaren 5a arte, baina Osakidetza enplegatuen kasuan, matrikularen prezio murriztua nahi badute, **horretarako azken eguna maiatzaren 31 da**, eta, gainera, Jakinsarean ere jakinarazteaz gain, beren arduradunen agiri bat aurkeztu beharko dute Osakidetza profesionalak direla egiaztatzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero: www.sexukablog.com / 608 900 871 / sexukablog@osakidetza.eus.



«Pazientearen hizkuntzan lan egiteak izugarritzko garrantzia du harengana iristeko orduan»

Jon Zarate UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea.

Osasunaren eta hizkuntzaren gaineko jardunaldiak antolatu dituzue datorren ekainaren 27an eta 28an. Nondik dator gai hau lantzeko ideia?

Duela bi urte hasi zen guztia. Batetik, medikuntzako ikasleek EUTSI plana aurkeztu ziguten, UPV/EHUko medikuntza-graduan euskalduntzea bultzatzeko, eta plan horretako zenbait kontu Osakidetzarekin dugun batzorde mistoan landu genituen. Horrez gain, Osakidetza giza baliabideetako sailarekin harremanetan egoteko aukera izan genuen, kontratazioak direla eta, eta Ara-

maioiko familia-medikua ezagutzeko aukera ere izan genuen, Aitor Montes, eta bere postulatuak azaldu zizkigun. Gainera, nazioartean kontaktu onak zituen, eta unibertsitatearekin elkarlanean hasteko asmoz zegoen, ikasleek gradu- eta master- amaierako lanak edota tesiak gai horren inguruan egin zitzaten bultzatzeko.

Osasungintzaren kalitatean oinarritzkoak dira onargarritasuna, irisgarritasuna eta ekitatea, eta, hain zuzen, jardunaldi hauetan hizkuntza hiru arlo horietan zer garrantzitsua den aztertuko duzue ebiden-

tzia zientifikoaren bidez. Zer-nolako garrantzia du?

Osasungintzak pazientearen du erdigunean, unibertsitateak ikaslea duen moduan. Hala, bada, pazientearen hizkuntzan lan egiteak izugarritzko garrantzia du harengana iristeko orduan. Bereziki, zenbait gaixotasun motatan: buruko osasunean, esaterako, edo pediatrian, euskaraz soilik bizi diren haur asko dagoelako Euskal Herrian. Kasu horietan, tratamenduen arrakasta hizkuntzarekin lotuta egon daiteke, eta badaude zenbait ebidentzia hori frogatzen dutenak. Horrekin kontzientzia-lan bat egin nahi dugu jardunaldietan, ebidentziak eta probak mahai gainean jarrita. Gainera, ez dugu gure eremua soilik landu nahi, eta antzera

dauden beste herrialde batzuen esperientziak ekarriko ditugu (Gales, Kanada), iritziak partekatu eta sinergiak sortzeko.

Jardunaldien helburuetako bat da nola bideratu osasun-arloko profesionala hizkuntzaren kontzientziazioa, eskaintza aktiboaren bitartez. Zein dira hori lotzeko estrategiak?

Estrategiaren oinarria zera da, inguruan dugunari entzutea eta pazienteen zentratzea; kontua nola dagoen aztertu eta landu behar da. Guk ikasleen aldarriak jasotzen ditugu, eta pazienteek eskaerak egiten dizkiete Osakidetzaari. Hala, batasuna lortu behar da gai horretan; jardunaldietan seriotasuna eman nahi diogu gaiari, ebidentziak erakutsi, gaiarekiko sinesgogor direnak konbentzitzeko. Askotan, trabak aurkitzen ditugu, euskarazko proaktibo izateari beldurra zaiolako, hizkuntzaren eskaerak konfort-egoeratik ateratzen dituelako zenbait langile. Bide horretan, zuzendaritza-taldeek argi eduki behar dugu, adostasun batekin, bideak zein izan behar duen. Osakidetza ongi finkatuta dauzka lehentasunak, eta proaktibotasunaren bila dabilta une oro. Gero, tokian-tokian ardurapeko postuetan daudenak bultzatu behar dira, estrategia horiekin bat egin dezaten. Proaktibotasun hori sarri azpimarratzen dute Galesen, eta azaltzen dute erakundeek izan behar dutela abangoardia. Jardunaldiek ez dute izan behar argazkirako soilik; ondorio batzuk ekarri behar dituzte, ahalik eta eremu zabalenera iristeko. Osakidetza unibertsitatearen babesaren badu goi-mailako ikerketekin eta ikasleen parte-hartzearekin, kanpotik entzuten diren zenbait diskurtso desaktibatuko ditugu. Hemen helburua ez da inor diskriminatzea, baizik eta sistema pazientearen beharretara egokitzea. Horixe eskatzen du gizarteak.

Estandar klinikoetan zenbat ageri

da euskara? Nola areagotu daiteke?

Orain ez dago oso zabaldua, orain arteko ekimenak oso lokalak izan baitira. Alabaina, dagoeneko adostuta dago plan bat, zeinarekin ados baitago Madrilgo osasun-ministerioa. Plan horrek SNOMED nazioarteko estandar klinikoan oinarritutako proiektu bat dakar estandar klinikoaren corpus nagusia euskaratzeko, eta Olatz Perez de Viñasprek egin du horren inguruko tesia –hitzaldia emango du jardunaldietan–. Tesi horren harira, Osakidetza akordio bat sinatu du, zeinaren bidez itzulpen automatikoan oinarritutako programa bat ezarri nahi baitu epe laburrera. Oinarritzeko estandar klinikoaren corpusean oinarritu da, eta historia klinikoaren euskaraz agertzeko balioko du. Hizkuntzalariak, medikuak, UPV/EHUko IXA taldea... Jende asko dago proiektuaren atzean, eta oso tresna ona lortu da.

Euskaraz egiten diren doktore-tesiak gutxi dira gaztelaniaz edo ingelesez aurkezten direnekin alderatuta. Nola anima ditzakegu doktoregaiak tesiak euskaraz idaztera?

54 tesi irakurri ziren UPV/EHU euskaraz; 526 izan ziren guztira. Tesiak nazioartekotzen ari dira, eta ingeleza ari da gora egiten, baina euskara ere gora ari dira pixkanaka. Horretarako, zenbait politika abiarazi ditugu. Esaterako, diru-kopuru mardula bideratzen dugu horretara, eta sei edo zazpi kontratu egiten ditugu urtero doktoregaiantzat, tesia euskaraz egiteko baldintzapean. Goi-mailako ikerketan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak ere baditugu, baina argi utzi behar dugu gure ikerketa-curriculumak ebaluatzeko hizkuntza estandarra ingeleza dela. Hala ere, horrek ez du oztopatzen euskaraz produkzio zientifikoa handia izatea: kultura zientifikoren katedra dugu, urtero ia 400 dibulgazio artikulu euskaraz argitaratuz; aldezkeria zientifikoak ditugu (Ekaia,

Tantak eta Gogoia), eta abar. Tesiei dagokionez ere, euskaraz argitaratzen diren tesi onenei saria ematen diegu Euskaltzaindiak eta UPV/EHUk. Alegia, jendea erakartzeko amuak badaude.

Sarri aipatzen da mediku onaren eta mediku euskaldunaren arteko dikotomia. Nola eraits daiteke uste hori?

Erakutsi behar da ez dela euskaldunen kontua soilik, baizik eta gai hau serio tratatzen dela nazioarteko beste eremu elebidunetan ere. Garrantzia du kontu horrek, eta hala landu nahi dugu jardunaldietan; tresnak pilatu nahi ditugu halako esamoldeei erantzun egokiak emateko. Erroka handia da, eta, jardunaldiak lehen pausoa diren arren, ez dugu azkena izaterik nahi. Alde horretatik, pozgarria da Osakidetza gai horren inguruan duen seriotasuna, eta txalotzekoak dira hartu dituen erabaki politikoak ere.

Osakidetzan hainbat pauso eman dituzte: hizkuntza lehenetsiaren erregistroa egin dute; dokumentazioa euskaratu; sentsibilizazio-kanpainak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak betetzearen garrantziaz... Alabaina, asko al dago egiteko?

Hortaz arituko da Aitor Montes. Sentsibilizazio-kanpainari eta kontzientziazioari dagokionez, hemen zera falta da: profesionalak adoretzea, ahalduntzea, eta lan egiteko ohiturak aldatzeko erraztasunak ematea. Azken batean, Osakidetza eta unibertsitatea oso erakunde handiak dira, eta gai hau egunerokotasunean integratu behar dugu, eztabaidagai izan ez dadin. Gaia badaukagu, baina denok batu behar dugu proaktibotasunean. Horren adibide, Gaelikoak euskarak baino babes legal txikiagoa du, baina, erabilerari dagozkion ikerketetan, aurrerago doaz, arlo akademikoan kontzientziazioa daudelako edo. Hori euskarara ekar daiteke, eta jardunaldietan landuko dugu.

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

«ETA» JUNTAGAILUAREN ERABILERAZ

Eta, Hiztegi Batuak dioen bezala, maila edo izaera bereko perpausak edo osagaiak lotzeko darabilgu: Ospitaleko *arduradunek eta* erakunde soziosanitarioetako *ordezkariek* bilera egin dute. Hiria *itsu eta ezinduentzat* egokitu beharra dago. *Itsaso, mendi eta basamortuetan* ibili da. *Zure etxeaz eta gure lanbide berriaz* mintzatu dira.

Erraza ematen du, baina batzuetan arazoak sortzen dira hitzak arindu-edo nahi direnean; esaterako: *Mendia eta itsasotik heldu da ura.* *Adiskideak eta lagunez mintzatu zara.* *Ingelesa eta frantsesari buruzko iritziak.* *Aldundia eta Partzuergoaren arteko elkarrizketak.*

Halakoak saihestea oso erraza da, nahikoa da kasu-markak osorik ematea: *Menditik eta itsasotik heldu da ura.* *Adiskideez eta lagunez mintzatu zara.* *Ingelesari eta frantsesari buruzko iritziak.* *Aldundiaren eta Partzuergoaren arteko elkarrizketak.*

Dena dela, hona arauak zer dioen:

Juntagaiak erakusleak edo pertsona-izenordainak direnean, nahitaezkoa da sintagma osoak juntatzea:

- *Honekin eta harekin* hitz egin zuen (eta ez, *hau eta harekin* hitz egin zuen).
- *Zuk eta guk* egingo dugu (eta ez, *zu eta guk* egingo dugu).

Singularreko sintagmetan, kasu-markadun sintagmak juntatzea gomendatzen da:

- *Aitari eta amari* esaeizu nirekin hitz egitera etortzeko (eta ez, *aita eta amari* esaeizu...).
- *Alkateak eta gerenteak* sinatu dute akordioa (eta ez, *alkatea eta gerenteak* sinatu dute...).

Pluraleko sintagmetan, kasu-sintagmak juntatzea edo izenak juntatzea, aukeran izaten da:

- *Meatze eta lantegietatik atera dira* oihuak.
- *Maite ditut* eguzki, zero eta izarrak

Eta inportanteena, beharbada: determinatzailea duten kasu-markarik gabeko izen-sintagmak ezin junta daitezke kasu-markadun sintagma batekin:

- *Zera esan zuen gaixoa eta familiakoei* begira...
- *Gainbegiralea eta erizainen* arteko harremana ezin hobea da.
- *Intraneta eta Interneti* buruzko informazioa.

✓KOMUNZTADURA

Eta-k juntatutako sintagmek aditzaren komunztadurari eragiten badiote, normalena izaten da aditzak pluraltasunaren marka hartzea:

- *Alkateak eta gerenteak sinatu DUTE* akordioa.

Hala ere, badira salbuespenak; esaterako, komunztadura singularrean egiten da:

- Juntagaiak perpaus osoak direnean: *Niri bazkaldu ondoren zerbait irakurtzea eta musika entzutea* gustatzen ZAIT.
- Sinonimoak direnean: *Umorea eta gogoa* ez ZAIGU falta.
- Izen abstraktuak juntatzen ditugunean: *Hemen erabili DEN arreta eta zehaztasuna.*
- Zenbait esapidetan: *Hau eta hura esango DIDAZU, Hori eta bestea esan DEZAKEZU.*

Era berean, komunztadura singularrean egiten da maiz:

- Aditza aurrean jartzen denean: *Nik BADAUKAT* etxe bat, auto bat, familia bat eta beste.
- Izen zenbakaitzak direnean: *Ura eta olio*a bota behar ZAI O.

Iturria: Euskal estilo libururantz.

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK
EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2017KO
LEHENENGO DEIALDIA

Idatzizko proben emaitzak ekainaren 9an argitaratuko dira eta, aurreikusita dagoenez, ahozko probak ekainaren 14, 15 eta 16an egingo dira EAEko hiru lurraldeetan.

☞intranet-orria

2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
EGIAZTATZEKO EZOHIKO DEIALDIA

Idatzizko probak ekainaren 26an egingo dira, Gasteizen, Erizaintzako Unibertsitate Eskolan.

☞intranet-orria

UPV/EHU-REN XXXVI. UDA-IKASTAROKAK



«Osasuna eta hizkuntza».

Ekainaren 27 eta 28an, Bilbon, Abandoibarreko Bizkaia Aretoan.

☞web-orria

UEU, UDAKO EUSKAL
UNIBERTSITATEAREN 45.
UDA-IKASTAROKAK

Iruñean, Baionan eta Eibarren.

☞web-orria

